TABAKALERA

# HIZKE-TALDI HANDIA
# LA GRAN CONVER-SACIÓN

TABAKALERA

11-12 **ABENDUA** DICIEMBRE



J. J. GRANDVILLE "UNIVERSE OF IRON" 1844

*Hizketaldi Handia* jardunaldi saioa, 2016-2017 biurtekoan, Tabakaleran, hitzaldi, mintegi, erakusketa eta musika eta zine zikloen bidez garatuko den *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektuaren atarikoa da. Proiektu honek, substantzia bizigarri modernoak ditu abiapuntu: tabakoa, kafea, azukrea eta kakaoa. *Hizketaldi Handia* jardunaldien bidez, substantzia horietara lehen hurreratze bat proposatzen da, hainbat ikuspegi eta esparru ezberdinetatik datozen begiradak gurutzatuz.

Kolonizazio prozesuek eta zabalkunde ekonomikoak abiarazi zituzten itsasbide transatlantikoen bitartez Europako gizartera sarbidea izan zuten tabakoa, kafea, azukrea edo kakaoa bezalako substantziek, eta gizarte horretako ohiturak aldatu zituen merkantzia zirkulazioa eragin zuten. Substantzia horien komertzioak sortutako ibilbideen azterketa, egunerokotasunean dituzten erabilera ezberdinak, edo haiek kontsumituz hartzailearen gorputza eraldatzen duteneko printzipio izaera, mundu garaikidean gure lekua zein den pentsatzea ahalbidetzen diguten ikerketa baten elementuak dira. Proiektuaren abiapuntu den eraikinak berak - tabako fabrika izandakoa - gurutzagune hartan du jatorria.

Historialariek diote XVIII. mendeko Europa elkarrengana hurbiltzen ari ziren sentsibilitateen garaia izan zela. Klase, gustu, ikusmolde eta jende askotarikoen arteko nahasketa, hein batean, hiri modernoak errazten zituen elkartze eta kutsatze aukerek eragindakoa. Zentzu horretan, kafe-etxeek jokatutako paperak arreta berezia jaso izan du egile ezberdinen aldetik; hizketaldia eta “esamesa” pizten zituzten leku gisa, garaiko ideiei eta hizkuntzari, azken batean, gaur “aktualitatea” bezala ezagutzen den horri forma ematen lagundu baitzuten.



Baina, deus gure asmoetatik urrunago hizketaldia garai historiko eta kultural jakin batera murriztea baino, bere jatorria hitzaren sorrerarekin berarekin nahas bailiteke hala. Eta nahiz hizketaldia definitzeko saiakerek partzialtasunean erortzeko arriskua ere izan dezaketen, zehaztekoa hemen, hizketaldiaz ari garenean “hitz egite

soilagatik, plazeragatik, jolastearren edota adeitasunagatik ematen den etekin zuzenekorik edo berehalakorik ez duen elkarrizketa hartaz”[1] ari garela. Erakunde humanistiko handiak, ezagutzan eta kodean bere erreprodukzio infinitua bilatzen duen makineria ekonomikoak baldintzatuta dauden honetan, ekintza libre eta kritiko batetarako lekuen inguruko galderak inoiz baino zentzu handiagoa hartzen duela dirudi.

*Hizketaldi Handia* bertan parte hartu nahi duen ororentzat irekia dagoen proposamena da, eta eztabaidarako espazio bezala ulertzen da. Azken batean, gogoetarako eremu honek, ikuspuntu, praktika eta figura ezberdinen nahasturaren bitartez, garaiotako irudi dominanteak higatu eta subjektibitateari bere egikeran suposatu ohi zaion neutralitatea ezbaian jartzeko aukera zabaltzen digu.



1. GABRIEL TARDE. *LA OPINIÓN Y LA MULTITUD*. TAURUS COMUNICACIÓN 1986. MADRIL

Las jornadas *La Gran Conversación* son la antesala del proyecto *Estimulantes: circulación y euforia*, que se desarrollará en Tabakalera en el bienio 2016-2017, con un programa de conferencias, seminarios, exposiciones, y ciclos de cine y música. El proyecto toma como punto de partida los estimulantes modernos. Estas sustancias, el tabaco, el café, el azúcar o el cacao, fueron introducidas por las rutas transatlánticas iniciadas con los procesos de colonización y expansión económica, generando una circulación mercantil que transformó los hábitos de las sociedades occidentales. El análisis de los recorridos geográficos trazados por su comercio, sus usos en la vida cotidiana, o su condición como principios que son ingeridos modificando el cuerpo del consumidor, son elementos de un estudio que nos posibilita pensar nuestro lugar en el mundo contemporáneo. El edificio que acoge este proyecto, una antigua fábrica de tabacos, también sitúa sus orígenes en esta encrucijada.

Los historiadores aseguran que la Europa del siglo XVIII fue una época de sensibilidades convergentes. Una mezcla de clases, gustos, perspectivas y gentes diversas, provocada, en parte, por las posibilidades de reunión y contagio que la ciudad moderna facilitaba. Como ejemplo, el papel que jugaron las casas de café ha tenido en este sentido una consideración particular de la mano de distintos autores; lugares que estimulaban la conversación y el "cotilleo", contribuyendo a dar forma a las ideas y al lenguaje del momento, lo que hoy se conoce como la "actualidad".



Pero no se trataría solo de reducir la práctica conversacional a un periodo histórico y cultural determinado, puesto que sus orígenes bien podrían confundirse con el surgimiento mismo de la palabra. Y aunque los intentos por definirla también puedan pecar de parcialidad, quisiéramos precisar que nos referimos a la conversación como "aquel diálogo sin utilidad directa o inmediata, en el que se habla sobre todo por hablar, por placer o por juego o por cortesía"[1]. Hoy, cuando las grandes instituciones humanísticas se encuentran

1. GABRIEL TARDE. LA OPINIÓN Y LA MULTITUD. TAURUS COMUNICACIÓN 1986. MADRID

condicionadas por una maquinaria económica que busca en el conocimiento y el código su reproducción *ad infinitum*, la pregunta acerca de cuáles son los espacios privilegiados para suscitar una actividad libre y crítica parece adquirir más sentido que nunca.

*La Gran Conversación* es una propuesta abierta a todas las personas que quieran tomar parte en ella y se entiende como un espacio para el debate. Un campo especulativo donde la mezcla de ideas, prácticas y figuras, abra la posibilidad de socavar las imágenes dominantes sobre el tiempo presente, y de cuestionar la neutralidad que se le presupone a la subjetividad en su confección entusiasta.

## **HIZKETALDI HANDIA** | LA GRAN CONVERSACIÓN

## **EGITARAUA** | PROGRAMA
## **ABENDUAK 11 - 12** DICIEMBRE

Bi egunetan zehar ezagutzaren esparru ezberdinetako hainbat gonbidatu izango ditugu, proiektuaren muina diren lau substantzia bizigarrien inguruan solasean: tabakoa, azukrea, kafea eta kakaoa.

Durante los dos días en los que se desarrolla el encuentro se contará con la presencia de invitados que proceden de campos disciplinares diversos. Las intervenciones y debates previstos analizarán, desde distintos puntos de vista, cuatro sustancias estimulantes que se abordan en el proyecto: el tabaco, el azúcar, el café y el cacao.

### **Ostirala, abenduak 11** | Viernes, 11 de diciembre

Lantegia aretoa | Sala Taller
Izen-emantea | Inscripción: www.tabakalera.eu
Gehienez 30 pertsona | Máximo 30 personas

10:00
Proiektuaren aurkezpena | Presentación del proyecto.

**Ane Rodríguez Armendariz**, Tabakalerako kultura zuzendaria | Directora cultural de Tabakalera
**Oier Etxeberria**, Tabakalerako proiektu artistikoen arduraduna | Responsable de proyectos artísticos de Tabakalera.



10:30 - 14:00
Lantegia I Taller
***Estimulantes: circulación y euforia*** (ES)

Max Jorge Hinderer Cruz, idazle, itzultzaile eta kultur kritikariak gidatuko du.
Impartido por Max Jorge Hinderer Cruz. Escritor, traductor y crítico cultural

Lantegi hau *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektuan jorratuko diren ikerketa ildoei begirada zabal bat eskaintzeko

asmoz proposatzen dugu. Bizigarrien zirkulazioaz jardungo gara, hainbat esparrutatik begiratuta, hala nola, ekonomia koloniala eta garaikidea; metabolismoa, teknologia eta biokimika, eta ingurugiroa; eta artea, pentsamendu filosofikoa eta historia globaletik jaso dugun sentsibilitate estetikoa. Lantegia “Boterearen Mikrofisika” (Michel Foucault) alderdi material, ekonomiko eta politikotik ulertzearen garrantziaz jardungo da, horrela, kapitalismo garaikidearen botere mekanismo eta teknologiak ulertzera iritsi ahal izateko.

Este taller trata de ampliar las principales líneas de investigación que está llevando a cabo el proyecto *Estimulantes: Circulacion y Euforia*. Se abordará el tema de la circulación de los estimulantes en diversos niveles como la economía colonial y contemporánea; el metabolismo, la tecnología y la bioquímica y el medio ambiente; o el arte, el pensamiento filosófico y la sensibilidad estética que hemos heredado de la historia global. El taller planteará la necesidad de entender la llamada “Microfísica del Poder” (Michel Foucault) en términos materiales, económicos y políticos, para conseguir entender mejor los mecanismos y tecnologías del poder del capitalismo contemporáneo.

18:00
Hitzaldia | Conferencia
***De velocidad, estimulantes y mediums.***
Erick Beltrán. Artista.
Tabakalerako Z aretoa | Sala Z de Tabakalera



Hizlariaren eta testuinguruaren arteko harremanak abiadura sinkronia bat dakar berekin. Bazkal-ostekoa barnetik datorrenari jarraitzen dion jarduna da, patxadatsua baina etengabekoa: digestio bat. Kafea, kakaoa zein tabakoa lagungarri zaizkigu eguna edo elkarrizketa bat abiatzeko beharrezko den erritmoa hartzeko. Bizigarri bakoitzak abiadura zehatz bat ematen digu, eta beraz, bizitasun handiago edo txikiagoko diskurtsoa. Mistikoek eta xamanek ere substantzia sakratuen bitartez bilatzen dute sintonia. Abiadura aldaketak dituen mundu batek adierazten du aldi

berean errealitatearen aurkezpen ezberdinak gertatzen direla, ordena paraleloetan, eta horietara heltzeko, ordena batetik bestera jauzi egin behar dela.

La relación que existe entre el conversador y el contexto implica una sincronía de velocidad. La sobremesa es una plática que sigue lo interno, es pausada pero constate: es una digestión. El café, el cacao o el tabaco nos ayudan a entrar en el ritmo necesario para comenzar el día o una conversación. Cada estimulante nos arroja a una velocidad específica y por tanto, hacia un discurso de distintas revoluciones. Los místicos y chamanes también sintonizan a través de sustancias sagradas. Un mundo con cambios de velocidad implica que existe varias presentaciones de lo real al unísono, pero en ordenes paralelos, y que para acceder a ellos necesitamos saltar de un orden a otro.

19:00
Hitzaldia | Conferencia
***Las plantas como estimulantes del pensamiento***
Michael Marder. Ikerbasque-ko (UPV/EHU) Filosofia irakaslea eta ikertzailea | Profesor de filosofía e investigador en Ikerbasque (UPV/EHU)
Tabakalerako Z aretoa | Sala Z de Tabakalera

Askotan, guk jakin gabe, landareek gure zentzumenak estimulatzen dituzte usain, kolore, forma, eta zaporez osaturiko mundu baten bidez. Batzuetan, eta hainbat landarek nerbio sisteman izan dezaketen eraginagatik, giza-portaeran eta jakindurian eragiten duen eremu zabal bat aktibatzeko gaitasuna dute. Premisa hauetatik abiatuta, landareen munduarekin dugun harremana birpentsatu eta ikuskatzerako orduan filosofiak duen garrantziaz arituko gara, hauek sentikortasun eta adimenez hornituak daudela ulertuz.



A menudo, sin saberlo nosotros, las plantas estimulan nuestros sentidos a través de un vibrante mundo de olores, colores, formas y sabores. Excepcionalmente, y debido al efecto que el mundo vegetal ejerce sobre nuestro sistema

nervioso central, tienen la capacidad de activar un amplio campo de influencias cognitivas y conductuales. A partir de estas premisas, esta ponencia se aproxima a los estudios que, desde la filosofía, analizan las formas de relación que es posible establecer con el mundo vegetal.

## **Abenduak 12, larunbata** | Sábado, 12 de diciembre

**Hizketaldi Handia. Aurkezpenak eta eztabaidak**
**La Gran Conversación. Presentaciones y debates**

10:00 - 20:00
Tabakalerako Z aretoa | Sala Z de Tabakalera
Aurkezpenak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Itzulpen zerbitzua egongo da.
Las presentaciones serán tanto en euskera como en castellano. Con servicio de traducción.

Egun osoko jardunaldia lau mahaitan banatuko da, mahai bakoitza substantzia bizigarri bati eskainia egongo delarik: tabakoa, azukrea, kafea eta kakaoa. Mahaietan eremu eta izaera ezberdineko pertsonak jardungo dira elkarrekin, hizketaldia piztu eta gaiek izan ditzaketen norabide eta korapilo askotarioetan murgiltzeko. Gonbidatu bakoitzak aurkezpen labur bat egin ostean, eztabaidari zabalduko zaio atea.

Este encuentro se divide en cuatro mesas de trabajo dedicadas a cuatro estimulantes: tabaco, azúcar, café y cacao. En estas mesas participan invitados cuyas intervenciones servirán para activar las conversaciones y ampliar las variables que surjan a partir de los temas propuestos. Tras las presentaciones breves de los invitados están programados distintos debates.

10:00-12:00 **Tabakoa | Tabaco**

- Marc Badal. Ikerlaria / Investigador
  *"El mundo clausurado del monocultivo: plantaciones y etnocidio campesino"*

- Susana Carro Ripalda. Antropologa eta Deusto Unibertsitateko ikertzailea / Antropóloga e investigadora de la Universidad de Deusto.
  *"La persona fumadora: visiones, creaciones, agencias, experiencias"*

- Marion Cruza / Pablo Marte. Artistak / Artistas
  *"J'ai du bon tabac"*

- Amaia Urra. Artista.
  *"Bla"*

12:30-14:30 **Azukrea | Azúcar**

- Peio Aguirre. Arte kritikaria, komisarioa eta editorea / Crítico de arte, comisario y editor.
  *"El precio de endulzar el café"*

- Hedoi Etxarte. Idazlea eta musikaria / Escritor y músico
  *"Wagner: artearen autonomiatik iraultza"*

- Iñaki Martínez de Albéniz. Soziologoa eta UPV/EHUko irakaslea / Sociólogo y Profesor en la UPV/EHU
  *"Azúcar sistémico. Cuando cabeza y estómago no comen juntos"*

- Isabel de Naverán. Ikerlaria, irakaslea eta idazlea
  Investigadora, docente y escritora.
  *"Incorporación y envoltura"*



16:00-18:00 **Kafea | Café**

- Erick Beltrán. Artista.
  *"La sobremesa es movimiento peristáltico"*

- Harkaitz Cano. Idazlea / Escritor.
  *"Homo Wi Fi: Kafearen eskala"*

- Max Jorge Hinderer Cruz. Idazlea, itzultzailea eta kultur kritikaria / Escritor, traductor y crítico cultural
  *"Farmacologías de la Ilustración"*

- Ula Iruretagoina. Arkitektoa eta UPV/EHUko irakaslea / Arquitecta y profesora en la UPV/EHU
  *"Beste espazioa"*

- Asier Mendizabal. Artista.
  *"If I drink coffee, am I still Straight Edge?"*

18:00-20:00 **Kakaoa | Cacao**

- Mikel Alberdi. Historialaria / Historiador.
  *"Un líquido espeso y negruzco como un brebaje": Txokolateari buruzko zenbait testigantza XIX. mendearen bueltan"*

- Usue Arrieta. Artista.
  *"Edari energetikoak"*

- Miren Jaio. Arte kritikaria / Crítica de arte.
  *"Faking it"*

- Álvaro Perdices. Artista eta Prado Museoko (Madril) erakusketa koordinatzailea / Artista y coordinador de exposiciones en el Museo del Prado (Madrid).
  *"Xocorite/ChocoPOP: Del rito. Por la moral. En el flujo"*

- Inés Plasencia. Antropologoa eta arte historialaria / Antropóloga e historiadora de arte.
  *"Cacao, explotación colonial y trabajos forzados en la cultura visual de la Guinea Española"*



Moderatzaileak | Moderadores:
Olatz González. Antropologoa eta UPV/EHUko irakaslea / Antropóloga. Profesora en la UPV/EHU
Oier Etxeberria. Tabakalerako proiektu artistikoen arduraduna | Responsable de proyectos artísticos de Tabakalera

TABABALERA

**KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA**
–
CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA
–

**Zentroaren ordutegia:**
**Astelehenetik ostegunera:**
**08:00 - 22:00**
**Ostirala: 08:00 - 23:00**
**Larunbata: 10:00 - 23:00**
**Igandeak eta jaiegunak:**
**10:00 - 22:00**

Horario del centro:
De lunes a jueves:
08:00 - 22:00
Viernes: 08:00 - 23:00
Sábado: 10:00 - 23:00
Domingos y festivos:
10:00 - 22:00

**TABAKALERA**
**Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa**
Centro Internacional de Cultura Contemporánea
Duque de Mandas, 52
20012 Donostia / San Sebastián
943 118855
info@tabakalera.eu
www.tabakalera.eu